KRONIKA

# AURKEZPENAK PRESTATZEN

3. fasea: aurkezpenen prestaketa

**2020-01-23**



# AURKIBIDEA

1. AURKEZPENEN PRESTAKETA IRUDIETAN ........ 3

1go ariketa: orain arteko balorazioa ........ 3

2. ariketa: talde argazkia ........ 4

3 ariketa: lagunei aurkezpena prestatu ........ 5

4. ariketa: irakasleen aurkezpena prestatzen ........ 6

2. GEHIGARRIA ........ 7

# 1. AURKEZPENEN PRESTAKETA IRUDIETAN

Saio hau irudien bitartez egindako kronika bat da. Saioaren nondik norakoak jakiteko gehigarrietan gehitu dugun karta didaktikora jo.

## 1go ariketa: orain arteko balorazioa



## 2. ariketa: talde argazkia





## 3 ariketa: lagunei aurkezpena prestatu



## 4. ariketa: irakasleen aurkezpena prestatzen



# 2. GEHIGARRIA

Saio honetarako erabili zen karta didaktikoa gehitzen dugu.

*Proiektua*: **ELIZATXO IKASTOLA: JOLASTOKI BERRIA** *Fasea:* **3. AURKEZPENAK PRESTATU** *saio zenb*: **1** *data*: **2020ko Urtarrilaren 23**

| DENBORA | HELBURUAK | ZER | BALIABIDEAK | NORK |
|---|---|---|---|---|
| 9-9:10 | | **1. Ariketa: BESARKADA MUSIKALAK** | | |
| 10´ | Talde sentimentua sustatzea den denei harrera positiboa eginez. | Musika jarriko da, eta parte hartzaileek dantzan egingo dute gelan zehar. Musika eteten denan, pertsona bakoitzak beste bat besarkatuko du. Dinamizatzaileak musika ipiniko du berriro, eta parte hartzailek dantzan hasiko dira, bakarrik edo, nahi izanez gero kidearekin. Musika etetean, hiru pertsoank egin beharko diote besarkada elkarri. Gero eta pertsona gehiago sartuko dira besarkada bakoitzean. Azkenean, denek emango diote besarkada elkarri.<br><br>*Ondoren, hurrengo 3 galderak egingo zaizkie (SHAIL):*<br>• *Nola **S**entitu zarete?*<br>• *Zerk deitu dizue atentzioa ariketa honetatik? (**H**ausnarketa)*<br>• *Zer **I**kasi duzue?*<br>• *Nola **L**otuko zenukete egindakoa esku artean dugun gaiarekin?*<br><br>***Honako mezua emango zaie hasi aurretik:<br>• Gu talde bat gara, jolastoki berria pentsatzen ari garena.<br>• Eskolako kide guztien iritzia, gogoa, proposamenak jaso eta kudeatzen ari gara.<br>• Oraindik pausu, erabiki eta lan batzuk ditugu egiteko talde bezala.<br>***Botatzen dituzten erantzunak Araitzek prozesu honetan taldearen garrantziarekin lotuko du. | Mugikorra<br>Abestia<br>baflea | araitz |
| 9:10-9:20 | | **2. ariketa: FASEAREN EBALUAZIO** | | |
| 10´ | Aurreko fasearen balorazio kuantifikable bat izatea. | Elizatxo ikastolak prestatuta duen ebaluazioa egingo da. | txantiloiak | Leire<br>asier |
| 9:20-9:25 | | **3. Ariketa: TALDE ARGAZKIA** | | |
| 2´ | Orain arte lanean egon den taldearen argazkia izatea. | Talde guztiari argazki bat aterako diogu. | mugikorra | araitz |
| **////////////// IKASLEEI AURKEZPENA /////////////** | | | | |
| 9:25-9:35 | | **4. Ariketa: saioaren helburuak azaldu** | | |
| 10´ | | Batzarrean jarriko gara, denak borobil handian. | -Ikasleen | araitz |

| | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|
| | | | Gaurko egunarekin fase berri bat hasiko dugu:<br>• 3. fasea: orain arte egin duguna ikasle eta irakasleei azaldu<br><br>Gaurko egunean bi aurkezpen prestatuko ditugu:<br>• Gure klasekideei<br>• Irakasleei<br><br>Eguna horrela egongo da antolatua:<br>• Klasekideen aurkezpenarekin hasiko gara.<br>• Gero etena egingo dugu.<br>• Ikasleen aurkezpena prestatuko dugu.<br><br>**Ikasleen aurkezpena labur labur azaldu taldetxoetan jarri aurretik:**<br>• Aurkezpenak 6 momentu izango ditu:<br>1. Ongi etorria eman klasekideei gure lanerako espaziora<br>2. Marrazkietan atera dena azaldu eta zertarako erabili dugun azaldu.<br>3. Planoetan atera dena azaldu eta ondorio horiek nola erabili ditugun azaldu.<br>4. Sortu ditugun irizpideak aurkeztu.<br>5. Maketak aurkeztu.<br>6. Antolakuntzarako proposamenak aurkeztu. | aurkezpeneko kartulinak 4 | |
| 9:35-10:15 | | | **5. Ariketa: ikasleen aurkezpena prestatu** | | |
| **2´**<br><br><br><br><br><br><br>**3´** | 40´ | | 4 taldeetan banatuko ditugu:<br>1. 1go maiakoak (Araitz)<br>2. 2. Maiakoak (Asier)<br>3. 3. Eta 4. Maiakoak (Leire)<br>4. 5. Eta 6. Maiakoak (Miren)<br><br>**Zer egin beharko dutenaren informazioa errepikatu:**<br>• Bikote bakoitzak bere klasekideei orain arte egin dutenaren berri eman beharko diote.<br>o Aurreko ariketan aipatu dena errepikatu berriz.<br>• Klasekideek egiten dituzten hobekuntzak jaso beharko dituzte ere. | -Aurkezpen eskema 24 kopia<br>-Retulkiak<br>-Hobekuntza kartulina/arbela | Araitz<br>Mire<br>n<br>Leire<br>asier |

<table>
<tr><td>15´<br><br><br><br><br><br><br><br><br><br>15´</td><td></td><td></td><td>Ze gai edo eremu azaldu beharko diete kideei, Honako hau galdetu lehenbizi:<br>Zer da zuen klasekideei azaldu behar diozuena?<br><br>Beraien iritziaren arabera dugun eskema aldatu daiteke edo zuzenean guk haiei lagunduko diegu dugun eskemarekin:<br>• Marrazkiak erakutsi eta atera dituzten ondorioen berri eman<br>• Planoak erakutsi eta atera diren ondorioak azaldu.<br>• Patio berrirako irizpideak partekatu.<br>• Maketak erakutsi.<br>• Proposamen berriak jaso<br>• Gurasoekin batera eraikiko da jolastoki berria<br><br>Binaka, bakoitza bere klasekidearekin jarri eta dauden lanak banatu eta ensaiatzera gonbidatu:<br>• Zeinek azalduko du gauza bakoitza?</td><td></td><td></td></tr>
<tr><td colspan="6">////////////// IRAKASLEEI AURKEZPENA /////////////</td></tr>
<tr><td colspan="2">10:15-10:25</td><td></td><td>5. Ariketa: irakasleen aurkezpen orokorra azkar azaldu</td><td></td><td></td></tr>
<tr><td></td><td>10´</td><td>Irakasleen aurkezpena zertan datzan informatzea.<br><br>Interesen arabera aurkezpenean izan nahi duten rola aukeratzea.</td><td>Batzarrean bilduak, denak borobilean.<br><br>Otsailaren 10an irakasleei orain arte egin duguna aurkeztuko diegu. Aurkezpen hori prestatuko dugu orain.<br><br>Saioak 3 momentu izango ditu:<br>1. Ongi etorria<br>2. Orain arte egin dugunaren azalpena<br>3. Zirkuluan irakasleekin hitz egin<br><br>Momentu bakoitza zertan datzan azalduko diegu<br>1. Ongi etorri: irakasleei ongi etorria emango diegu eta gure lan gela honetara sartzeko gonbidapena egingo diegu.</td><td>-Irakasleen aurekezpenaren kartulina</td><td>araitz</td></tr>
</table>

| | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|
| | | | 2. Orain artekoa azaldu: gure klasekideei egin diegun bezala irakasleei egin duguna azalduko diegu.<br>3. Zirkuluan irakaslekin hitz egin: zirkuluan jarriko gara eta guk haiei 9 galdera egingo dizkiegu.<br><br>Hemendik aurrera 4 taldeetan banatuko gara:<br>1. Ongi etorria prestatuko dutenak: 3 lagun (Leire)<br>2. Orain arteko azalpena prestatuko dutenak: 8 lagun (miren)<br>3. Zirkuluan irakaslekin hitz egin: 9 lagun (araitz)<br>4. Mikrofonoa eta argazki arduradunak: 4 lagun. (asier)<br>Bakoitzak nahi duen taldean parte hartuko du. Horretarako dinamizatzailetako bakoitza gelako punta batean jarriko da eta ikasleak aukeratu beharko dute. | | |
| **10:30-11:00** | | | **ATSEDENA** | | |
| **11:00-11:10** | | | **6. Ariketa: hitzik gabeko afektua** | | |
| **10´** | | Onarpen sentimendua sustatzea hitzik gabe adierazpenaren bidez. | Jolastokira joan aurretik aukeratutako taldeetan kokatuko gara:<br><br>Borobil bat osatuko dute, eta bat erdian jarriko da, begiak eskuekin estalita. Gainerakoak hurbildu egingo zaizkio eta sentimendu positiboak adieraziko dizkiote, hitzik erabili gabe, nahi duten moduan, minutu batez. Denbora hori amaitutakoan, beste pertsona bat ipiniko da borobilaren erdian. Denak erditik pasa beharko dute, baten batek ez badu nahi, ez zaio behartuko.<br><br>Gero lurrean eseriko gara eta nola sentitu garen galdetuko dugu, nahi duenak bere esperientzia kontatu dezake. | | Talde bakoi tzeko dina mizat zailea |
| **11:10-11:35** | | | **7. Ariketa: irakasleen aurkezpena prestatu** | | |
| | | | **ONGI ETORRIA PRESTATUKO DUEN TALDEA** (3haur) (LEIRE)<br>• Irakasleei ongi etorria emateko ardura dute horretarako:<br>○ Pasiloan itxaron beharko dituzte eta ongi etorria eman.<br>○ Mesedez, Karrozero zintan bakoitzaren izena jartzeko eta bularrean pegatzeko | -Karrozero zinta<br>-Retulkiak<br>-2 Argazki kamera<br>- Zelo meheak eta potoloak | Talde bakoi tzeko dina mizat |

| | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| **10´**<br><br>**10´** | 20´ | | | eskatuko die batek. (1 Haur)<br>▪ Karrozero zinta eta retulkiak eskeiniko dizkiete.<br>o Izena bularrean jarrita dutenean, honakoa galdetuko die beste haur batek (1 haur):<br>▪ Zertara etorri zareten badakizue? Haien erantzunak entzungo dituzte eta gero haietako batek honakoa esango du: "gaur jolastoki berrriaren inguruan egin dugun lanketa entzutera etorri zarete, guri entzuteko prest etorri zarete?" (1)<br>o Beste batek atea irekiko du eta sartzeko eskatuko die: "orain poliki poliki sartu zaitezkete" (1haur)<br>• Behin dena banatuta eta ongi ulertua entsaiatuko dute behar dituzten aldiak. | -Galderak handian<br>-irakasleen saioko 24 eskema<br>- ongi etorrirako esaldiak paper handietan. | zailea |
| **10´**<br><br>**10´** | | | | **ORAIN ARTEKO AZALPENAK PRESTATUKO DUTENAK (8haur)** (Ainhoa)<br>• Marrazkiak (2)<br>• Planoak (2)<br>• Irizpideak eta maketak (2)<br>• antolakuntza (2)<br>Honetarako dagoen fitxara joan (ikasleekin landu dugun fitxa berdina da)<br><br>• Behin dena banatuta eta ongi ulertua entsaiatuko dute behar dituzten aldiak. | | |
| 10´ | | | | **ZIRKULUAN IRAKASLEEI EGIN BEHARREKO GALDERAK PRESTATUKO DUTENAK (9haur) (araitz)**<br>• Dinamizatzaileak sarrera bat egingo du. (araitz)<br>o Dinamika nola funtzionatzen duen azalduko du.<br>o Dinamika honetan entzuteko prestutasuna behar da, baina baita ELKARREKIN eraikitzeko jarrera behar da.<br>o Ez dugu nahi haurrak konbentzitzea baizik eta haiekin batera gauzak eraikitzea.<br>o Beraz, dinamika honek eskatzen duena batez ere konpromezua da, bestearen egoeran jartzeko konpromezua, entzuteko konpromezua eta elkar eraikitzeko konpromezua.<br>• Haurrek honako galderak egingo dituzte:<br>o Zer da azaldu dugunetik gehien gustatu zaizuena? | | |

| | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|
| 10´ | | | ○ Zer da azaldu dugunetik deigarriena egin zaizuena?<br>○ Ados zaudete sortu ditugun irizpideekin? Baten bat bota duzue faltan?<br>○ Jolastokiaz zenuten ikuspegia aldatu da? Zergatik?<br>○ Prest zaudete entzun duzuena gurekin batera eraikitzera? Zergatik?<br>○ Ulertu duzue zergatik den inportantea jolastokia gure beharretara egokitzea?<br>○ Nola ikusten duzue zuen papera jolastoki berrian?<br>○ ??????<br>○ Guk nahiko genuke zuek ere gurekin eta gure gurasoekin eta lagunekin batera auzolanean jolastoki berria eraikitzea, animatuko zarete gurekin lan egitera?<br><br>• Behin dena banatuta eta ongi ulertua entsaiatuko dute behar dituzten aldiak. | | |
| 20´ | | | **MIDROFONOA ETA ARGAZKIAZ ARDURATUKO DIRENAK (4haur) (asier)**<br>• Hitzegiteko mikrofonoa izan beharko dute eskuan. Beraz, talde hau mikrofonoa esku batetik bestera joan dadila arduratuko da.<br>○ 2 Mikrofono sortu behar diuzte.<br>• Saio osoan zehar, une bakoitzeko argazki esanguratsuak atera beharko dituzte.<br>○ Gaurko saioan praktikatu beharko dute. Hau da, has daitezen argazkiak ateratzen | | |
| **11:35-11:55** | | | **8. Ariketa: entsaio orokorra** | | |
| | | Seguritatea hartu. Zalantzak argitu denen artean. | Entsaio orokorra egingo dugu, gutxienez behin. | | **araitz** |
| | | | 9. **ariketa: EBALUAZIOA:** | | |
| | | | Batzarrean, honako galdera ere botako da:<br>• Zer moduz joan da goiza? Berdin pentsatzen dutenak elkartzea eskatuko diegu, hau da taldetxoak egingo dituzte iritziaren arabera.<br>• Zer da gehien gustatu zaizuena gaurko goizetik? Zergatik? Berriz ere taldeetan jarri beharko dira iritziaren arabera.<br>• Zeozer berria ikasi duzue? zer? Ozen bota beharko dute. | | |

**PROIEKTUAREN DINAMIZAZIOA**